

1. eztabaidagaia

Emakumeen boteretzea

Emakumeen boteretzeak egoera sozial justuago bat ekarriko du?

2. eztabaidagaia

Zer da feminista izatea?

Feminista izatea matxista izatea da, baina alderantziz.

3. eztabaidagaia

Gizonen papera berdintasunean

Emakumeak gizonik gabe elkartzea eta antolatzea diskriminatzea da. Gizonek nahitaez parte hartu behar dute mugimendu eta politika hauetan.

4. eztabaidagaia

Botere-harremanak

Badago botere-harremanik emakume eta gizonen arteko harremanetan?

5. eztabaidagaia

Antolaketa sozial erantzukidea

Politikarien esku dago emakumeen eta gizonen ardura parekideak lortzea?

6. eztabaidagaia

Pribatua politikoa da

Etxe barrukoak arazo pribatuak dira. Umeak zaintzeko lanaldi-murrizketak zeinek hartzen dituen, gaixoekin egoteko baimenak nork hartzen dituen... etxeko kontuak dira.

7. eztabaidagaia

Harreman afektibo-sexualak

Harreman afektibo-sexualak era askotakoak izan daitezke eta pertsona bakoitzak gure gustuak ditugu. Norberak gustuko duena ezagutuz joango gara eta aurrean dugunarekin hitz egitea baino hoberik ez dago berak gustuko duena ezagutzeko.

8. eztabaidagaia

Berdintasun faltsuaren irudia

Gaur egun emakumeak libre dira, berdintasunean bizi gara: aukera berdinak ditugu lan egiteko, kirola praktikatzeko, bozkatzeko... Futbolean jokatu nahi dutela? Ba, joka dezatela! Hemengo emakumeok ondo bizi gara. Genitalen mutilazioa, burka, harrikadak... urruneko kontuak dira!

9. eztabaidagaia

Genero-arauak

Inork ez digu agintzen nola jantzi behar dugun! Guztiz askea naiz hori erabakitzeko.

10. eztabaidagala

Emakumeen boteretzea

Oro har, mutilek neskek baino autonomia eta iniziatiba handiagoa dute?

11. eztabaidagaia

Harreman eredu ez-osasuntsuak

Nire bikotekidea jeloskor sentitzen bada, maite nauelako da.

12. eztabaidagala

Maitasun erromantikoa

Zu gabe nire bizitzak ez du zentzurik; zu gabe ez naiz ezer.

13. eztabaidagala

Hezkidetzak

Gaur egungo hezkuntza-sisteman berdintasuna lortuta dago. Azken batean, neskek eta mutilek batera ikasten dugu gaur egun eta berdinean espero da gutaz.

14. eztabaidagaia

Heteroaraua

Emakumeek gizonak maitatzea eta gizonak emakumeak maitatzea zerbait naturala da.

15. eztabaidagaia

Transexualitatea

Transexualitatea gaixotasun psikologikoa da; eta, beraz, mediku-tratamendua behar du.

16. eztabaidagaia

Lanaren banaketa sexuala / genero-rolak

Herriko festetan normala da emakumeak herri-bazkariak eta hura zerbitzatzeaz arduratzea eta gizonak txosnak eta musika-ekipoa muntatzeaz arduratzea.

17. eztabaidagaia

Sexu-harremanak

Mutilek arduratu behar dute nesken plazerraz.

18. eztabaidagaia

Indarkeria sexista

Neskei gustatu egiten zaie kaleko edozeinek botatako piropoak entzutea. Azken finean laudorioak dira.

19. eztabaidagaia
Segregazio bertikala

Emakumeak eurak dira ardura-
postuetan ez egotearen erantzule.

20. eztabaidagaia
Genero-estereotipoak

Mutilak, oro har, indartsuak eta
ausartak dira eta neskek, berriz,
maitagarriak eta txintxoak.

21. eztabaidagaia
**Antolaketa sozial
erantzukidea**

Gure etxean amari
laguntzen diogu etxeko
lanak egiten.

22. eztabaidagaia
Genero-rolak

Emakume batek, bizitzan
zoriontasuna lortzeko, ama izan
eta familia bat osatu behar ditu.

23. eztabaidagaia
Gorputz normatiboak

Gorputz gizenak eta iletsuak
gorrotagarriak dira!

24. eztabaidagaia
**Harreman eredu ez-
osasuntsuak**

Maitasunak beti dakar
sufirimendua.

25. eztabaidagaia
Familia-ereduak

Lesbianez osatutako familiek
familia heterosexualek dituzten
eskubide berberak al dituzte?
Adopzioa, intseminazioa,
ezkontza, administrazioa,
onarpena...

26. eztabaidagaia
Zer da feminismoa?

Feminismoa emakumeen
eskubideen aldeko mugimendua
da, emakumeen bizitzan soilik
eragiten duena.